



Herriko hamaika kontu oholtza gainean.- Umorea izan zen nagusi beste behin Santa Ana eguneko parodian. Urtero bezala, herritar talde batek garatutako gidoia oholzaratu zuten 35 bat lasarteoriarrek. Okendo plaza bete egin zen parodia ikusteko eta egindako txaloei erreparatuz, ez zuen hutsik egin. Jendeak ederki pasa zuen herriko kontuez egindako txiste eta oholtza gainean agertutako pertsonaia bereziekin. Esan behar da euriari aurre egin behar izan zitzaioela saioan zehar. Parodiak bere egiturari jarraiki, bandoarekin hasi eta Brunette Troluzzi eta Maximiliana Iruzurtini akusatua erretzen bukatu zen. Horrela amaiera borobila eman zitzaion Santa Ana egunari. Goizean, meza, hamaiketako eta Erketzek dantza egin zuen Santa Ana karkabaren aurrean ohiturari jarraipena emanez. Parodiako aktoreentzat prestaketa arratsaldea izan zen eta frontoian, pala txapelketako 3. eta 4. postuak eta final handia jarraitu ahal izan ziren.

2 HITZALDIA

Lucio Urtubiarekin solasaldia Xirimirik antolatuta

Aurreko ostegunean herritarrek Lucio Urtubia anarkista historikoa ezagutzeko aukera izan zuten. Xirimiri elkarteak gonbidatuta etorri zen Cascantetik eta bere bizitzako pasarte ezagunez hitz egin zuen besteak beste. Gazteei geldi ez egoteko eta ekiteko deia egin zuten.



3 ERREPORTAJEA

Lander hil zela 50 urte bete dira

Leandro Etxaniz Aramburu zen 'Lander'. Herritarrak euskaraz XX.mende hasierako aldizkari ezberdinetan idatzi zuen. Bere izena eman zitzaion herriko ikastolari hastapenetan. Gazte Urnietara joan zen arren, sorterria oso presente izan zuen bere idatzietan.



TXINTXARRI
oporretara
doa. Irailaren
7a arte ez da
argitalpenik
izango.
Herriko
informazio
guztia
txintxarri.eus
atarian

EGUZKITAKO BETAURREKOAK
deskontua
% 30
MODELO BERRIAK
2015

R.P.S. Nº 149/10/L.G.

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan hainpainen ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Ray-Ban
OAKLEY
arnette
eta askoz gehiago...

www.multipopticasgipuzkoa.com

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

GIZARTEA

Lucio Urtubiaren solasaldi jendetsua

Xirimiri Elkateak antolatutako ekitaldira jende andana gerturatu zen ostegunean

Xirimiri elkarteak antolatuta ostegunean Lucio Urtubia anarkista historikoak hitzaldia eskaini zuen gurean. Bere bizitzaren pasarte ezagunak gain, egun gizartea nola ikusten duen ere aipatu zuen. Ekiteko garaia dela behin eta berriz errepikatuz, gazteak animatu zituen gizartea aldatzeko gauzak egin eta geldirik ez geratzeko.

Lucioren bizitza aski ezaguna da gehiengoarentzat. 84 urteko anarkista nafarrak solasaldi luzea izan zuen ostegunean bera entzutea gerturatu ziren herritarrekin.

36ko gerraren inguruko bizipenekin hasi zen. Oso gaztea zela, pasarte gogorak eta miseria bizitzea egokitu zitzaioala azaldu zuen. Aberria zein neurriraino gorrotatu zuen aipatu zuen, "injustiziaz betetako gizartea besterik" ez zuelako ezagutu.

Parisen bizitako denboran egindako lagunek markatu

zioten bidea. Mugimendu anarkistan izen handiekin egin zuen topo André Breton eta Albert Camus tartean eta haiek izan zituen irakasle. Gauzak egiteko beharra zuten eta hala ekitea erabaki zutela azaldu zuen, beti ere zorte handiko gizona izan dela azpimarratuz, "gauza ilegalak egitean, garrantzitsuenak da harrapatua ez izatea".

Lucioren ustetan pertsona bat bere ekintzengatik bereizten da. Pertsona bakar batek mundua aldatzeko gai dela sinisten du eta horregatik ber-



Ordu eta erdiz egon zen Lucio herritarrekin solasean.

tan bildutako gazteei bereziki, ekiteko eskatu zien. "Ez egon beste batek eskaini behar dizuen lanaren zain, ekin. Zuen enpresak edota kolektibitateak sortu. Sareak eratu".

Anarkia eta askatasunaren

ideiak oraindik beharrezkoak direla defendatu zuen. Kubako erreboluzioan izandako esperientzia, "Che Guevara nire Bilboko lagunak baino pinpirinagoa zen" ez zen harreman onik egon esan zuen. Elkarlanerako eskain-

tzarekin joan ziren anarkistak erreboluzioan parte hartzera, dolarrak faltsifikatzeko eskaintzarekin hain zuzen, baina kubatarren ezezkoa izan zuten.

First National City Bankeko bidai txekeen afera azaldu zuen ere. Banku bati hainbeste diru lapurtu eta defentsan abokatu onak izan zituelako, berarekin negoziatzen amaitzea oraindik harritzen du Lucio. Lapurtutako dirua munduan zehar piztuta zauden mugimendu iraultzaileak babestea bideratu zen nagusiki.

Amiaieran herritarrek galderak egin zituzten. Mota askotako galderak izan ziren, baina Luciok ekiteko deia eta gauzak aldatzeko bakoitzak duen ahalmena azpimarratu zituen behin eta berrero.

Udala eta Aterpearen arteko hitzarmena

Jesus Zaballos alkateak eta Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak sinatu zuten hitzarmena asteazkenean. Hitzarmenak merkataritza eta ostalaritza aktibatzeke planaren eta merkataritza biziberritzeko plan bereziaren balio-aldia mantenduz, hainbat konpromiso hartzen ditu.

Bazkide berriak erakartzeko kanpaina egingo dute elkarlanean, urte batez haien kuotak udalak finantzatzeko dituzte. Teknologia berrietan eta komunikazioan taldeko formazioa bazkideek eskuratzea ahalbidetuko du udalak ere. Banakako aholkularitza eskaintzea, marketineko aholkulari bidez; Aterpeak Merkataritza biziberritzen egitasmoan eta Tratu On Bat markaren eta haren webgunearen promozioan aktiboki parte har dezan sustatuko da eta azkenik, herriko giro komertzialari eragiten dioten ekimen berrietan



Alkatea eta Aterpeko lehendakaria hitzarmena sinatzen.

parte hartzeko proposatuko zaio Aterpeari.

Aterpeak, bazkide berriak erakartzeko lana egingo du, Udaberri festa, Santa Ana pintxo, Stockaren azoka, Bezeroen hamabostaldia, pintxo lehiaketa edo ibilbidea eta Eguerrietako kanpaina egingo ditu bezeroak erakartzeko.

Zaballosek esan zuen oso esparru garrantzitsua dela merkataritzarena eta hau lan-tzen jarraituko dutela. Elkarlanean, berriki jaso duten herriko

merkataritzaren egoera aztertzen duen ikerketaren (PERCO) gainean lanean hasi direla ere aurreratu zuten. Azken txostena 2004koa zen eta berriak, hainbat proposamen eta lehen-tasun markatzen ditu sektorea dinamizatu eta hobetzeko.

Ormazabalek Tratu On bat markaren baitan visa txartel bat ateratzea aztertzen ari direla aipatu zuen. Bi aldeek nahikoa finkatuta dauden ekintzez gain, beste batzuk antolatzea ez dute baztertzen.

Emanaldi koloretsua



Donostiako Danborrada irudikatu zuen haur talde batek pasa den ostiralean.

Festa erraldoia. Hitz horiek definitzen dute ongien pasa den ostiralean udako txokoetako kideek eskaini zuten emanaldia, Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan.


Euskal Herriko hainbat jaitako pertsonaiak irudikatu zituzten haur eta begiraleek: San Ferminak, Lekeitioko an-

tzarrak, Zeledon, Mari Jaia, Miel Otxin eta beste hainbat. Talde bakoitzak aurreko egunetan ikasitako koreografia oholtzaratu zuen, familia eta lagunaren gozamenerako.

Bukatzean, batu egin ziren begirale guztiak eta 'koreografia' sorpresa eskaini zuten haur eta ikusleen aurrean.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Nerea Eizagirre
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguro, Jexux Artebe, Gorka Alvarez, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz



Santa Ana eguna igandea izanik, asko izan ziren mezara gerturatu ziren herritarrek.



Erketzeko dantzariak agurra, arin-arina eta fandangoa eskaini zuten Santa Ana Karkabaren aurrean.



Concha Arraztio omendu zuten parodiak urteetan besteen alde egindako lanagatik.



Familia argazkia atera zuten aktore guztiek afaltzera abiatu baino lehen.



Mezatik irteadakoan zuzenean karkabara gerturatu ziren herritarrek.



Dantzaren ostean egin zen aurtengoan hamaiketako.



Aktoreek azken entsegua egin zuten arratsaldean.

Santa Anaren omenez

Parodiak egun osoko ospakizunei amaiera eman zien

Ohi bezala Santa Ana eguneko ekitaldi jendetsuena izan zen parodia. Herritar talde batek antzetzuta, urtean zehar herrian gertatutakoari erreposoa egin zioten beti bezala pertsonaia xelebreen laguntzarekin.

Santa Ana eguneko ospakizunak izan ziren nagusi. Aurtengoan meza luzatu egin zen, tartean Erketzeko kideek agurra dantzatu zuten, eta hau amaituta ia hamabiak ziren. Denak karkabara abiatu ziren eta hamabietan puntuatu, Erketzeko dantzariak agurra, fandango eta arin-arina dantzatu zuten Santa Ana karkabaren aurrean ospakizun egunari hasiera emanez.

Ondoren bai, ohiko hamaiketako egin zen Brigitarren komentuko plazan. Mezara edota karkabara gerturatutako herritar guztientzat. Herriko zenbait tabernetan Aterpeak sustatutako Santa Ana pintxoak egin ziren eskuragarri eta asko izan ziren bakailua modu ezberdinetara prestatuta dastatzera animatu zirenak.

Arratsaldean parodiaren gertutasuna nabaria zen,

nahiz eta frontoian giro ederra egon pala txapelketako finaleraino.

Aktore lanetan aritu behar ziren herritarrek kultur-etxean egin zuten hitzordua azken entsegua egin eta dena prest edukitzeko. Jantzigegira joan eta dotore-dotore jantzita, Udaberri elkartera abiatu ziren afaltzera. Aurretik noski, familia argazkia atera zuten.

Udaberrin bapote afalduta desfilarari ekin zioten aktore guztiek Andatza plazatik.

Parodia

Jendea eserita zegoen plazan, lekua hartuta, aktoreak iritsi zirenerako. Ohi bezala parodiak omenaldi txiki bat eskaini nahi izan zuten eta aurtengoan aitortza Concha Arraztiori egin zitzaion. Urteetan behartsueneren alde egindako lanagatik.

"Beti besteengatik egin du lan, komunitaterako lan pila

esparru ezberdinetan. Lan guzti horrek aitortza merezi zuen" aipatu zuten parodiako antolatzaileek. Lierni Rekondok eskaini zion bertso berezia eta eskertuta azaldu zen Concha Arantxa Genauten hitzen ondoren.

Beste behin parodiak irribarra eragin zien herritarrei. Grezia aipatuz hasi zen antzerkia, bandoarekin. "Bando bando gure alkateak esan do hemendik aurrera plaza hau ez dela izango Okendo. Alkateak izena aldatuko dio. Gaurtik aurrera Syn-tagma plaza izango da". 'Rambo' ere oholza gainean izan zen parodia hasieran. Erraustegiari aipua, San Juan Sua La Esperazan egin edota datorren urtean herriko jailetan bigantxak izango direla eta, aurtun Donostiako zezenketetara bidegorria hartuta joan daitekeela esan zuten.

Nola ez, epaiketa hasita, udal hauteskundeak izan zuten bere tartea.

"Bi malpartatu hauek zirku bat muntatu dute, guri

barre egiteko. Zirku juridiko bat, zirku politiko bat, eta, jakina, zirku horretako pailazoak gu gara, Lasarte-Oriako herritarrok". "Gogoratuko duzue nola duela hilabete zirkuaren genuen hipodromoan. Dena estrategia bat izan zen, benetako zirkuak, hauteskundeak jakina, herritarren atentziotik desbideratzeko. Futbola amaituta, zirkuarekin tontotu nahian aritu dira hauek. Bellisssssimo gora eta bellisssssimo behera!" "Ministerio fiskalak bi malpartatu hauek kondanatzera iritsi nahi du. Eta horretarako erakutsiko du hauteskundeena zirku hutsa dela, ikuskizun bat baino ez dela, ilusionisten trikimailua, egiantan alderdiak kolego zikinean, kromo-trukean, aulki-jokoan baino ez baita biltza!". Horren froga omen da denek proposatu zutela kirol instalazioak berritzea besteak beste, "herritarrek hain potolo al gaude?".

Nola ez, iazko eskaera bidegorria bazen, aurtun martxan dagoela, erreferentzia ere egin zitzaion parodian. Bertan jende pila ibiltzen omen da, Maialen Chourraut bere piraguarekin eta guzti.

Bizikleta izan nahi duen herritarra ere pasa zen oholztatik.

Apaizak ez zuen hutsik egin eta bere laguntzaileekin, elizara jendea erakartzeko hainbat trikimailu aurkeztu zituen.

Elizako lokaletan egingo duen ekintza programa ugaria azaldu zuten. Herriko elkar-teei utzi eta bertan denetarik egin ahal delako harro esanez.

Birziklapen sistema berri-tzaile bat ere asmatu dutela esan zuten, "El Boda a Boda. Elizako atean kolgadore batzuk jarri ditugu kubo marroi batzuekin. Hauek arroz ez delako egoten dira, eta ezkonberriak ateratzerakoan hauei bota ondoren Rumba aspiragailu automatiko batek guztia jaso eta berri ere kolgadoreetan jartzen dugu. 22 ezkontza eta 5 kilo arroz besterik ez ditugu gastatu".

Bukatzeke, aparkatzeko arazoa eta Tximistarretako misterioak argitu zituzten Friker eta Sonotonnek. Erketzeko lagunek sorgin dantza eskaini zuten jarraian.

Akusatuak, Brunette Tro-luzi eta Maximiliana Irurzur-tini ez ziren sugarrengatik salbatu eta erre egin zituzten Santa Ana egunari amaiera borobila emanez.



Desfilea egin zuten ohi bezala elkartetik Okendora jendea parodiara gerturatatzeko animatuz.



Ohi bezala mota guztietako pertsonaia pasa ziren Okendoko oholztatik, ikusleek euriari egin behar izan zioten aurre,



Udaberri elkartean afari goxoaz gozatu zuten parte hartzaileek.



MAITE

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

PALA.-

Begiristain eta Arteaga Santa Ana pala txapelketako txapeldun

35-16 hartu zituzten mendean Jon Pello Artetxe eta Xabier Etxezarreta

Atzo arratsaldean XXXIV. Santa Ana pala txapelketako finala jokatu zen. Herritar ugari bildu zen Jon Begiristain-Xabier Arteaga eta Jon Pello Artetxe-Xabier Etxezarreta bikoteen arteko norgehiagoka ikusteko. Aurretik hirugarren postua izan zen jokoan Loidi-Barreneko pilotalekuan.

NEREA EIZAGIRRE

Bikoteek hezetasunari aurre egin behar izan zioten atzo arratsaldean Santa Ana Pala txapelketako finalean. Xabi Etxezarreta eta Jon Pello Artetxe urdinez eta Xabier Arteaga eta Jon Begiristain gorritz izan ziren nor baino nor txapela eskuratzeko lehian.

Bi bikoteek luze jokatu zuten eta atzelariak lan ederra egin behar izan zuten erritmoa mantentzeko. Aurrelariak ere lan ederra egin zuten, Begiristainek batez ere. Ikusleek ederki gozatu zuten tanto luzeekin, bi pareta, zabalerako jokaldi eta dejadak guztiak batera puntu batean baino gehiagotan ikusi ahal izan baitziren.

Hala ere, bikote gorriak pixkanaka partida bereganatu eta tartea irekitzen joan zen. 9-3, 14-6, 18-10, 24-13, 31-15 eta azkenik, 35-16koa izan zen markagailua, gorrien alde.

Era honetara, Xabier Arteaga eta Jon Begiristainek altxa zuten Santa Ana txapelketako garaikurra.

Sari eta omenaldia

Finalaren ostean, sari banaketa ekitaldia egin zuten frontoian bertan. Jon Pagola antolatzaileak eta Txus Alonso kirol zinegotziak banatu zituzten trofeoak.

Txapelketako lehen lau bikoteei emandako sariez gain, finaleko jokalaririk onena ere prest zuten mahaiaren gainean; Jon Begiristain aurrelariak jaso zuen trofeo hori.

Bestalde, finala hasi baino lehen Santa Ana Pala txapelketako antolatzaileek Aldaz H.K.ri omenaldi txiki bat egin zioten. Antolatzaileek oroigarria eman zioten Elena Zabala Klinikako ordezkariari eta Erketz EDTko lagunek agurra dantzatu zuten. Era honetara, urte hauetan emandako laguntza eskertu nahi izan zioten.



Jon Begiristainek eta Xabier Arteagak irabazi dute aurtengo Santa Ana pala txapelketa.

Astiazaran eta Arluziaga hirugarren

Finala baino lehen hirugarren eta laugarren postua erabaki ziren. Xenki Astiazaran eta Iñigo Arluziagak gorritz Bernaitz Odriozola eta Santi Martin urdinez izan zituzten aurrez aurre. 9nako berdinketaren ostean apurtu zen norgehiagoka: Astiazaranek eta Arluziagak ongi irakurri zituzten arerioen mugimenduak eta horiek utzitako hutsunez baliatuz tartea irekitzen hasi ziren pixkanaka, 23-13ra arte. 35-19 gailendu ziren azkenean Astiazaran eta Arluziaga.



Xenki Astiazaran eta Iñigo Arluziaga geratu dira hirugarren txapelketan.

IGERIKETA.-

Herritar ugari Getaria-Zarautz zeharkaldian

Proba entzutetsua da Getaria-Zarautz zeharkaldia; hainbat jendek hartzen du parte urtero bertan. Horien artean egon dira aurtengoan hainbat lasarteoriatar ere. 15 herritarrek lortu zuten atzo proba bukatzea.

Manhattanera joango da Xabier Elizegi etzi, MIMS frogan parte hartzera. Atzokoa izan zen bidaiatu aurretik burutu zuen azken txapelketa. Saillkapen orokorrean 52. izan zen eta 30. bere kategorian. 38 minutu eta 48 segundo behar izan zituen proba burutzeko; herritarren artean Elizegi izan zen azkarrena.

Juan Vicente Martin izan zen hurrengoa, 40 minutu eta 31 segundotan geratuz kronometroa. Izaskun Salazar eta Pili Bodegas izan ziren hel-



Hainbat herritarrek argazkia atera zuten atzoko zeharkaldian.

mugaratu ziren hurrengo lasarteoriatarak. 208. eta 262. izan ziren hurrenez hurren.

Ia elkarrekin sartu ziren Maurilio Rodriguez, Iñigo Arias eta Enaitz Ibarburu. 49 minutu eta 13 segundo behar izan zituen Rodriguezek eta handik 13 segundora iritsi zen Ibarburu.

Igor Amantegik ere lortu zuen 50 minutuetatik jaitea. 49 minutu eta 51 segundotan geratu zuen kronometroa. Laura Igea, Ismael Hernandez, Eneko Fernandez, Yoana Gonzalez, Ruben Villalon, Alvaro Garasa eta Oscar Gil herritarrek ere lortu zuten helmuga zeharkatzea atzoko Getaria-Zarautz zeharkaldian.

LABURRAK.-

Buruntzaldea IKTko Leire Martin bikain A Coruñan



A Coruñan jokatu zen Alebinen Espainiako txapelketan aritu zen lehian Leire Martin igerilari gaztea, uztailearen 16tik 19ra bitartean. 400 zein 200 metro estiloetako probetan hartu zuen parte eta maila ederra erakutsi zuen. 400 estiloetako frogan 5 segundotan hobetu zuen marka pertsonala, kronometroa 5 minutu, 45 segundo eta 65 ehunekotan geratuz. 200 estiloetan finalean sartzetik 10 ehunetara geratu zen Martin. Dena den, marka pertsonala hobetu zuen proba horretan ere. "Estreinakoz lehiatu du Leirek igerileku luzean eta emaitza bikainak erdietsi ditu; asko du ikasteko, baina etorkizuna baduela erakutsi du Leirek", adierazi zuen Borja Apeztegia prestatzaileak.

'Ziga' zaldiak irabazi zuen atzo Casino Kursaal saria, udako denboraldiari hasiera emanez

Atzo hasi zen zaldi lasterketen udako denboraldia Hipodromoan. Casino Kursaal saria jokatu zuten, 17:30ean hasita. Ziga izeneko zaldiak irabazi zuen lasterketa; Risby izeneko izan zen bigarrena eta Abdel hirugarrena. Hainbat jende gerturatu zen Hipodromora lasterketez gozatzera. Zazpi jardunaldi gehiago daude programatuta udarako; abuztuaren 3an izango da hurrengoa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren saria jokatu da.

Agenda

Ostirala 31, egun osoa



San Inazio Jaiak Basaundin

Osteguna

18:00etan, Haur tailerrak
20:00etan, Musika-jarduera
Ekintzak Basaundiko plazan izango dira.

Ostirala

9:00etan, Martxa erregulatua
10:00etan, Galeper botatzea
11:00etan, Haur jolasak
11:00etan, Buruhandiak
11:30ean, Meza nagusia Karmengo kaperan
12:30ean, Bote eta Toka txapelketa
14:30ean, Bazkideentzako Bazkaria

Buruntz-azpi elkartean

14:30ean, Bazkari herrikoia Oria-Txiki jatetxean
17:00etan, Gaztelu puzgarriak
17:30ean, Haurrentzako askaria
18:00etan, Palako herriko txapelketa binaka Plaza Berri pilotalekuan
18:30ean, Ezkondu eta ezkongabe-koen arteko futbol-sala kantxan
19:00etan, Apar festa teniseko pistatan
19:30ean, Zero Setteren kontzertua
23:00ean, Dantza-piezak izango dira festa bukatzeko, Ibai Berriak taldearen eskutik.

Lasarte-Oria

Musika

TXIMISTARRETA PARKEA

Larunbata 1, 19:30

"Transistores" Bilboko taldearen rockabilly doinuak entzun ahal izango dira Kultur Kale zikloaren baitan.

OKENDO PLAZA

Larunbata 29, 19:30

"James room & Weird Antigua" taldeak folk ukitua duten kantak eskainiko ditu Kultur Kale zikloaren baitan.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Uztailen zehar

Miguel Angel Felipe herritarrak Lasarte-Oria eta Zubietako kaleetako irudietan oinarritutako margoak ikusgai ditu.



Zubietako

Santio Jaiak

PLAZA

Gaur

6:00etan, Oilasko biltzaileen irteera, Uxue eta Lierni trikitilarien eskutik.

14:30ean, Oilasko biltzaileen iritsiera.

Asteazkena

10:00etan, Jolasen hasiera.
13:30ean, Umeen bazkaria: bakoi-tzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.
16:00etan, Gaztetxoaren antzerkia Kaxkapen. Ondoren, Jolasen jarraipena. Jarraian, Txokolatada eta buruhandiak.
19:30tan, Ur jolasak.
22:00tan, Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi eta Jexux Mari Irazurekin. Gai jartzailea Asier Azpiroz izango da.

Osteguna

17:00etan, Ginkana.

19:00etan, Futbito partida, gazteak ez hain gazteen aurka.
00:00etan, Kontzertuak: Kaotiko eta D-Pintxos. Zesuma taldearekin goizaldera arte dantza egiteko aukera.

Ostirala

9:00etan, Zikero prestaketaren hasiera.
9:30etan, Meza.
11:30ean, Errebote partidua.
14:00etan, Zikero jana.
18:30ean, Euskal dantzen emanaldia, Argentinako Necochea Euskal Etxeko Zahar Alai taldearen eskutik. Ondoren, Buruhandiak.
00:00etan, Jaien amaiera traka eta suziriek. Amaitzeko, Musika txosnan.

Herritarren txokoa

Alboka Txikin parte hartu

Hurrengo ikasturtean Alboka Txiki Abesbatza (6-14 urte) parte hartu nahi duenek idatzi dezakete info@albokaabesbatza.com helbidera eta apuntatzeko egunetan abisatuko zaie izena modu ofizialean emateko.

Bi txakur galdu dira

Joan den igandean bi setter ingeles galdu ziren Benedika eta Buruntza inguruko zonaldean. Arra da bat: zuria dauka gorputza, beltzak belarriak eta orban beltz batzuk ere bai. Bestea emea da, beltz eta zuri kolorekoa. Norbaitek aurkituko balitu edo informaziorik edukiko balu, 607 45 10 01 (Asier) edo 679 11 79 57 (Migeltxo) telefonoetako batera deitzeko eskatu dute jabeek.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Sarean



Euskarazko ipuinak entzuteko aplikazioa

Hemen dute gurasoek lehenengo APP-a ipuinak euskaraz entzuteko. Ipuin klasikoak entzun ditzakete umeek euskaraz, momentuz entzungai jarri dituzte: Hiru Txerritxoak, Ahate Itsusia, Sirenatxo, Txanogorritxu, Berunezko Soldadutxo, Emperadorearen traje Berria, Otsoa eta 7 antxumee, Edurnezuri, Hamelingo Txirularia, Hansel eta Gretel.

Ipuinak entzun da Iditec-ek garatutako aplikazioaren izena eta doan deskargatu daiteke google play-n. Euskaraz jakin ez eta hurrei euskaraz ipuinak kontatu nahi dizkieten gurasoentzat app aproposa dela azaltzen dute sortzaileek.

Xabier Elizegi Distantzia luzeetako igerilaria

“Orain arteko kirol erronka gogorrenaren atarian nago”

'Manhattan Island Marathon Swim' distantzia luzeko proban ariko da Xabier Elizegi herritarra

'Eta nik, zergatik ez?'. Hori galdetu zion bere buruari Xabier Elizegi distantzia luzeko igerilariak, MIMS froga ezagutu zuenean, joan den urtean. 2013an hasi zen igerian herritarra eta bi urteren buruan 47 kilometroko proba bat egitear da. 20 igerilari hartuko dute parte bertan eta Elizegi izango da horietako bat. Ez da erraza izan bidea, ordu eta egun asko eman baititu entrenatzen Kairoscore taldeko kideekin. Manhattaneko uretan ariko da larunbatean; egindako lana itsasora eramateko ordua da.

Iñigo GONZALEZ

Nire buruari jarri diodan erronka bat betetzeko gai naizela sentitzeak motibatzen nau”. Xabi Elizegi distantzia luzeko igerilariaren hitzak dira. Erronkez hitz egiten hasita, laster egin beharko dio aurre bati: MIMS proban hartuko du parte, abuztuaren 1ean. “Orain arte egin dudana kirol erronka gogorrenaren atarian nago, dudarik gabe”, dio Elizegik. Desafioak ez du herriko igerilaria kikiltzen. Alderantziz: gogor entrenatu ostean erronkari aurre egiteko prest dagoela dio.

Larunbat honetan murgilduko zara Manhattaneko uretan, MIMS proba burutzeko. Nola sentitzen zara? Batez ere gogotsu. Entrenamendu egun gogorak bukatu ditut dagoeneko, eta proba burutzeko gogo handiak ditut. Urduritasuna ere iritsiko da aurreko egunetan, baina oraindik ez.

Maletak egiten hasia izango zara honezkeroko... Noiz zoaz Manhattanera? Etzi egingo dugu bidaia. Lau pertsonak osatuko dugu espe-

dizioa: Irati Samaniego eta Ane Zulaika entrenatzaileek, Andoni Labaka taldekideak eta nik neuk.

Joan den udan UltraEbre Swim Marathon delakoa burutu zenuen, eta aurtengoan berriz, MIMS.

Biek nolabaiteko harremana badute, MIMSerako hautaketara begira burutu nuelako UltraEbre Swim Marathon; 31 kilometroko proba da hori.

Distantzia luzeko proben artean hiru handietako bat da Manhattanekoa, Mantxako Kanalekoa (Erresuma Batua eta Frantzia artekoa) eta Santa Katalinakoarekin (Kalifornia) batera. 'Koro hirukoitza' osatzen dute hirurek.

MIMS probak 47 kilometro ditu luze; Manhattaneko irlari itzulia emango diogu. East River, Harlem River eta Hudson River ibaietan zehar egingo dugu igerian. Korronteak kontrari izango ditugu lehenengo bietan baina mareen ondorioz ez indar askorekin. Alde izango dugu Hudsonen, abiadura dezentearekin. Proba 8:45ean hasiko dugu (14:45 izango dira Lasarte-Orian). Dudarik gabe esango nuke orain arte egin

dudana kirol erronka gogorrenaren atarian nagoela.

Horren seinale da baita ere parte-hartzaile kopurua. Ez dauka edonork proba hori burutzeko aukera.

20 igerilari ariko gara Manhattaneko uretan larunbatean. Urte hasieran jakin nuen hautatua izan nintzela, izugarriko poza hartu nuen. Aurreko urtean nire buruari erronka gisa jarri nion MIMS proban aritzea eta lortu dut azkenean. Nire buruari jarritako erronkak osatzeko gai naizela sentitzeak motibatzen nau.

Proba ezagutu nuenean nire barrurako galdera bat planteatu nuen: 'Eta nik, zergatik ez?'. Eta hemen nago orain. Hori bai, argi daukat honaino ez naizela ni bakarrik iritsi. Denbora honetan guztian nire alboan izan ditudanei eskerrak eman behar dizkiet: Kairoscore taldeko entrenatzaile Aaron, Irati eta Aneri, taldekide guztiei, Idoia lagun eta fisioari, familiari, erdi abandonatuta izan ditudan lagunei, animoak eman dizkidatenei, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Aquaman-i, Finis-i... Beraiei guztiei esker lortuko dut, lortzen baldin badut behintzat, MIMS proba bukatzea.

Larunbatean iritsiko zara helmugara edo agian ez, baina inork ez dizu esango prestatu ez zarenik.

Urte osoan zehar aritzen gara entrenatzen, baina MIMSari begira otsailean hasi nintzen



entrenatzen. Ekainera bitartean goiz eta arratsalde entrenatu dut, baita larunbat eta igande goizetan ere. Fisikoa landu dugu astean bitan eta igeriketa saioak besteetan, intentsitate desberdinetan.

Ekainetik aurrera berriz, bi egunetan igerilekuan aritu naiz goiz eta arratsalde eta gainontzeko egunetan 5, 6 eta 7 orduko saio luzeak egin ditut itsasoan, simulazio gisara. 240 kilometrotik gora egin ditut azkeneko 4 asteetan.

Ahal izan dudana guztietan kompetizioetan hartu dut parte, entrenamenduek ematen ez dizuten puntutxo hori edukitze aldera.

Hankak eta besoak bezain indartsu egon beharko du buruak 47 kilometroko igerialdi batean.

Hori esan ohi dut nik, gutxienez fisikoa bezain garrantzitsua dela alor psikologikoa. 8 edo 9 orduko proba batean nekeak eta minak agertu ohi dira, baina horiei aurre egiteko prest egon eta igeri egiten jarraitu behar duzu. Egunero saioetan landu dugu hori, itsas-zeharkaldi luzeetan batez ere.

Pluralean ari zara entrenamenduez hizketan.

Kairoscore izeneko taldean aritzen naiz 2013ko maiatzaz geroztik. Oso gustura nago taldean, ordu mordoan pasatzen ditut bertako entrenatzaile eta taldekideekin; familia

txiki bat osatzen dugu. Giro bikaina daukagu, asko animatzen naute. Beti daukat norbait nirekin entrenatzeko prest, edozertan laguntzeko gertu eta animoak ematen. Luxu bat da Kairoscore niretzat. Aaron Sanchezek, Irati Samaniegok eta Ane Zulaikak kristona egin dute eta nik ere ahal dudana neurrian lagunduko diet, noski.

2013a aipatu duzu lehen. Aldaketa urtea izan zen hori zuretzat.

Mugarria izan zen niretzat, urte horretan hasi bainintzen igeri egiten. Ez nuen kirol egiten batere eta 118 kilo pisatzen nituen orduan. Igerian hasi nintzen, kuadrilako lagun Aitorren bitartez Kairoscoren sartu nintzen maiztzean eta handik bi urtera hemen nago orain, 47 kilometro luze dituen proba baten atarian. Ingurukoak ezin sinetsirik daude, baina baita ni ere! Gustura nago.

Larunbateko proba burutu eta gero, zer?

Jende askok galdetzen dit 'Xabi, eta hurrengo zer?'. Benetan diot ez daukadala ezer buruan uneotan. Manhattanekoa egin nahi nuela garbi neukan, baina hortik aurrera ez dakit zer egingo dudana. Larunbateko bukatu, deskantsatu eta ikusiko dugu etorkizunean beste erronkaren bat egiteko prestatzen naizen edo ez.

